

AXURI BELTZAREN KONDAIRA

Ekain Errazu

Azpeitia

Haitzerri ez zen batere herri handia, ezta aberatsa ere. Baina maila handiko itsasontziak egiten zituen ospe handia zuen. Kostaldeko herrixkaren sarreratik abiatu eta, bertan ikusten omen ziren, nonbait, bi lantegi ontzigile; beti elkarri bizkarra emanez, arteko norgehiagoka zela-eta. Lantegien atzean, herri txiroa mendialdera zabaltzen zen. Beste aldean, mendizulotik zetorren ibaia igarota, itsasontzi dotore eta erraldoi batzuek edertzen zuten ikuspegia.

Bazegoen, ordea, badiaren erdian, higigaitz olatu handienen aurrean egon ere, soil, tinko eta isolatua, gainontzekoetatik desberdintzen zen galeoia. Beltza zen, egurra usteldua zeukala ematen zuen, eta egur landuan zituen apaingarriak zenbatetzinak ziren arrakalez urratutako kaskoan. Popa aldean, Axuri Beltza VIII irakur zitekeen, hizki handiz eta dotorez. Elezahar batek zioen, hiru aste etenik gabe iraun zuen denborale baten ostean azaldu zela galeoia Haitzerriko badiaren erdian. Herritarrek, liluraturik, edo izuturik beharbada, ez ukitzea erabaki zuten.

Egun eguzkitsua zen, baina ohi legez Haitzerri hotz egiten zuen (“Haitzerri, hotz herri” dio esae-rak). Egunsentirako herria esna zegoen. Atzerritarra zirudien hogeit hamar urte inguruko gazte aberaskila bat gustura zihoan txistu-joka —“Portutik portura, kantutik kantura; txanpon hutsen truke, gabiltza borrokan...”— kalean behera, parean zuen lagun orori diosala eginez. Herrixka erdi bi egiten zituen ibaia igaro eta, dozena bat lagun sendo lanean ari zirela ikustatu zituen: kupelak barrura sartzen, oholak aldatzen, sokak tenkatzen...

Txunditua geratu zen Joanes, Axuri Beltzaren kondaira umetan lehen aldiz entzun zuenean. Astiro joan ziren urteak Joanes gaztearentzat, urrezko hiria aurkitu nahian, eskifaia osatzeko asmoa erabaki bihurtu zuenetik. Ez zen lehen aldia amets sinestezinen artean murgilduta zebilela; maiz joaten zen dinosauroen irlara, edo gurari guztiak egia bilakatzen ziren lurraldera, itsaso zabaletan zehar. Baina beti porrot. Oraingoan, ordea, ametsetako lurra mapetan ezartzeko asmoa hartuta zegoen erabat.

Muinozabalgo dukearen semea zen Joanes, Haitzerri oso urrun geratzen zen lurralde batekoa. Gazte bipila, emakumezko kontu lizunetan sartu izanagatik ihesi zebilena. Kantauri kostaldeko andre-gizon ausart, arriskutsu eta odoltsuenek osatzen zuten Joanesen eskifaia. Istorio beltz askoren jabeak. Berak ere bazuen berea. Denak ere zer-baitetatik (edo norbaitengandik) ihesi. Edozein presondegitako gizon eta emakume arriskutsuak baino askoz ere oldartsuagoak.

Iñaki *Harakina*, anaia hil eta gorpua harategian saldu izana leporatu, eta bizi erdia kartzelan pasatu zuen gizona, kasurako. Edota Maritxu *Sagardo*, gizona hil zitzaionean sagardotan bi hilabetez sartuta edukitzeagatik erotzat hartu eta seme-alabak kendu zizkioten emakumea. Joanesek lehorrean ez zukeen erreal biko bat ere arriskatuko haietako bakar batengatik. Itsasoan, aldiz, bizia galduko zukeen haietako bakoitzarengatik.

—Zu al zara Joanes jauna?

—Ni neu. Asko falta al duzue?

—Bihar goizerako guztia prest izango da.

Irribarre zabala ernetu zitzaion aurpegian Joanesi.

Goiz-alban abiatu ziren, denen begietatik ezkutan, *festara* inor gehiago gonbidatu nahi ez balute bezala. Tripulazio-jendeak ez zuen gazteek adina ilusio; are gehiago, bazekiten itsaso amaiezin eta arriskutsuaren haruntz aldera ez zela halako irlarik agertuko. Nolabait, tripulazio hartako kideek ez zuten inolako bizipozik; bizipoza alproja haiei ardoak soilik ematen baitzieten.

Lehen gaua parrandan pasatu zuten, eta nahiz eta jende zuhurra izan, mozkorraren mozkorrez guztiak lo zerraldo jausi ziren, Axuri Beltza gauaren mende utziz. Bat-batean behe-laino itsu batek inguratu zituen. Itsasoan barrena galarazi zituen horrek. Galeoian gero eta lagun gutxiago zeudela ohartu ziren, baina ezer egiten hasterako ekaitz oldarkor batek harrapatu zituen. Jendeak itsas munstroak ikusi zituen, omen. Barruan, berriz,

mamuak zebiltzan. Tripulazio osoa izuturik zebilen. Lo egin ezinak egonezina sortu zien.

Handik hirugarren egunera, jende gutxiago eta etxera itzultzeko gogo handiagoa zegoen gizasemeen buruetan. Ekaitz luzeak baretu zuen, eta itsasontziak zakarki danbateko bat jaso zuen. Atea ireki, eta argiak bete-betean jo zuen Joanes gaztea begietan. Eguzki esnatu berriak urrezko irla argitzen zuen, ikusteko mingarria zen efektua eginez. Hura aurkituta pozarren zeuden guztiak.

Ametsetako irlan geratu ziren batzuk, urrezko txanponenez inguratuta, nahiz eta irlan beste ezer aurkitu ez. Edota izututa ez zutelako berriro ontzi hartan sartu nahi, beren familia ikusteko bazen ere. Itzuli egin ziren besteak, urre-mordoa eskuetan eta ezinezko mila amets buruan.

Egunak pilatzen zihoazen heinean, galeoiko elkarbizitza zailduz zihoan. Liskarrak gero eta handiagoak ziren. Joanesek behin baino gehiagotan erakutsi behar izan zien bere ezpataren distira. Erailketa bat tarteko, bi gizon marrazoetara bota zituen. Horrek apaldu beharrean, are gehiago zoratu zituen. Jendea ur bihurtzen ari zela ere zabaldu zen, behe-laino madarikatu hark gizasemek banan-banan irentsi eta ur bilakatuz. Inork ez zuen sinetsi begiz begi ikusi zuten arte; edo bere azaletan lainoaren hezetasuna sentitu arte.

Alprojak gutxitu ahala, ontzi-zoruan ur-putzuak ugaltzen ziren. Baina zoramenaren ondorioa zela pentsatzen zuten. Azkenerako, bakarrik geratu zen gaztea. Galeoiko kapitainaren egongela barroko

handian, zoruan hildakoek sortutako ur-putzuei begira, hasperen egin zuen Joanesek, bere txanda noiz helduko zain. Geldirik ez egotea erabaki zuen, eta masta nagusira igo zen lurralderen bat aurkitzeko grinatan, lurreratu eta maldizioa hausteko.

Urrunean, behe-laino artean, Haitzerriko herrixkaren forma begiztatu zuen. Axuri Beltzak bidea zekiela zirudien. Mastatik behera zetorrela bat-batean oinak bustiak sentitu zituen Joanesek, belaunetan gora eginez. Ahalegindu zen goraka igotzen, zerura salto egin nahiko balu bezala, baina konturatzerako bihotza bera ere ur bilakatu zitzaion. Soilik bere bizitza aski gaztea errepasatu eta Axuri Beltza madarikatzeko astia izan zuen.

Egia ala gezur, oraindik Haitzerriko badian, hantxe dago Axuri Beltza VIII izeneko galeoia. Urrutira, eulia harrapatzeko zain dagoen sugegorria dirudi.

Hantxe du, inork bertara igo eta urrezko irlara bidaiatu nahi badu.